

GARA > Ultima hora > Euskal Herria

TXOTX DENBORALDIA

Aurtengo sagardoa, "goxo, goxua", Argiñanoren arabera

Karlos Argiñano sukaldariari egokitu zaio txotx denboraldiari irekiera ofiziala ematea. Usaintsua eta freskagarria omen da aurtengo sagardoa.

12/01/2011 15:11:00

ASTIGARRAGA- "Hemen duzue aurtengo sagardo berria, goxo, goxua", ohiko formulari bere ikutua erantsi dio Karlos Argiñanok, Petritegi sagardotegian egin den irekiera ekitaldi ofizialean.

Hamar bat milioi litro sagardo ekoitzi dituzte aurten sagardogileek, aurreko denboraldiaren antzera, eta uzta horren emaitza sagardo "usaintsua eta freskagarria" da, ahoan luze irauten duena. Bertako sagar gehiago izan da aurten, baina sagardo ekoizpena ez da handitu, krisi ekonomikoak zuhur jokatzera bultzatu baitu.

Jon Azkue Lakuako Gobernuako Elikagaien Industrien sailburuordeak aurreratu duenez, aurki labeldun sagardoa ere izango da, txotx denboraldia amaitzen denean. Bertako sagarrarekin egindako 800.000 litro inguruk eramango dute label zigilua.